

UDALBERRI

5. zbkia. **Ataungo Udal Aldizkaria** 1997ko Uztaila

HERRITARREN IRITZIA ETORKIZUNERAKO OINARRI

ATAUNGO GARAPEN PLANA

BEREZIA



Garapen Plan hau burutzerakoan, herritarrok gaur egungo egoeraz duzuen iritzia eta etorkizunari buruz dituzuen gogoetak bildu nahi izan ditugu. Egunero kotasunetik at, etorkizunera begira lan egiteko Udalak ardatz nagusi bat izan behar duela pentsatzen dugulako, eta hori zehaztea izan da zeregin honen helburua.

Hemen duzue emaitza. Udalgintzaren ardatz izango diren irizpideak bildu dira hemen. Ez da hau Plan itxi bat izango, etorkizunean egoera eta beharrak aldatzen doazen heinean gaurkotuko dena baizik. Eta nola ez, sor daitezkeen ideia berriei ere irekia egongo dena.

Udaletik, hau errealitate bilakatzeko ahaleginean jarraituko dugu, eta zeregin honetan herritarroen elkarlanarekin kontaktatzen dugu. Herriaren aberastasuna ezberdintasunean dago, baldin eta hau, zatiketarako erabili ordez, kontsentsu bideak urratuz etorkizuna eraikitzeko erabiltzen badugu.

Aitor Auzmendi Asurabarrena

Alkatea

2



- Ataungo Udaleko udal-informazio aldizkaria -

• ARGITARATZAILEA •
ATAUNGO UDALA

• MAKETAZIOA • INPRIMAKETA
ANZA S.A.L

• Lege Gordailua: 1119/95

ATAUNGO UDALA ☎ 18.00.11



fundazioa
fundación

SARRERA

Garapen Plan honen jatorria joan den legegintzaldian koka daiteke. Orduan Udalean halako behar bat sortu zen: eguneroko arazoei erantzuteaz gain, etorkizuneko ikuspegi batekin ere lan egiteko beharra, alegia. Hau da, udalgintzan helburuak epe motzera ezezik, epe ertain eta luzera ere plantetu behar zirela.

Lan marko hori definitzeko, geldialdi bat egin eta ondorengo galdera honen inguruan ausnartzea izan zen jarraitutako bidea: nondik nora eramán nahi da herria? Eta erantzun edo emaitza, hain justu, Garapen Plan hau dugu. Beraz, Plan honen sorreraren arrazoi nagusi bezala hauxe aipa dezakegu: egunerokotasunetik ateraz, herriaren etorkizunari heltzeko Udaletik nabaritutako premia; nondik nora jo nahi den argitzekoa, gero norabide eta zentzu horretan lan egitearren udalgintzan edo udal mailan.

Plan hau dinamizatu eta burutzeko aholkularitza teknikoá enpresa aditu batek egin du (aurreko legegintzaldian erabakitakoaren arabera): Donostiako "OPE Consultores" deituak.

Hori horrela izan arren, Plan honek buruera eman dion prozesu osoan zehar herritarrak beraiek izan dira protagonista nagusienak. Izan ere, Udalaren ikuspegitik, horrelako ekimen batek burutze egokia izango badu eta aurrera aterako bada (Pla-

nean jasotako ekintza edo aurrikuspenak betez), ezinbestekoa gertatzen da bere horretan legitimatu edo bidezkotuko duen zerbaitekin kontatzea eta zerbait hori, hain zuzen ere, herritarren partaidetza da. Horregatik, udaletxeko zinegotzien artean bakarrik egin beharrean, herria bera edo herritarren ordezkaritza oparo bat inplika zedin lortzen saiatu izan zen Udala, garbi baitzeukan gero eta herri partaidetza zabala goa, orduan eta aberatsagoa izango zela, era berean, herriaren etorkizunari buruzko gogoeta lana.

**PROZESUARI,
HERRITAR
GUZTIEI
ZUZENDUTAKO
DEI ZABAL
BATEKIN EGIN
ZITZAION.**



UDALETXEA

**EGUNEROKO-
TASUNETIK
ATERAZ,
HERRIAREN
ETORKIZUNARI
HELTZEKO
UDALETIK
ANTZEMANDAKO
PREMIA IZAN DA
PLAN HAU
BURUTZEKO
ARRAZOIA.**

Arrazoi hori zela medio, prozesuari herritar orori zuzendutako dei zabal batekin ekin zitzaioela esan daiteke (1995eko udazkenean): dei horretan Udalak ekimenaren berri emateaz gain, bertan parte hartzeko gonbitea luzatu zion herriari.

Herritarren erantzuna: 40 bat lagunek eman zuten izena. Adin, ikasketak maila, auzo, eremu... ezberdinetako pertsonak osatutako taldea eratu zen. Herri Batasunak proiektu honetan parte hartzeari haseratik eman zion ezetza. Partaidetza alde-tik gainontzean egon zitezkeen hutsune esanguratsuenak ekiditearren, jende bat zirikatu ere egin zen (auzo konkretu batekoa, eremu zehatz batekoa...), parte har zezan saiatuz. Gisa honetara, talde nahiko zabal eta errepresentatiboa lortu zela esan daiteke. 40ko talde hau izan zen, beraz, prozesuaren protagonista nagusia.

Gainera, gerora begira ere, Planean jasotako ekimen edo ekintza bakoitza aurrera eramateko garaian, ekimen edo ekintza horretan interesik edo zerikusirik eduki dezaketen herritarren parte hartzea bultzatuko da, horiekin kontatzea mesedegarria



SAN MARTIN AUZOA

**PLAN HAU BURUTZERAKOAN
HERRITARRAK IZAN DIRA
PROTAGONISTA NAGUSIENAK.**

eta komenigarria baita, ekimenaren edo ekintzaren beraren arrakasta nahiz martxa onerako.

Prozesu honetan 3 fase bereiz ditzaitegu:

1. Herriko gabezien inguruko gogoeta.

3 lan taldetan banatuta, herriko gabeziak detektatzea izan zen lehenengo egitekoa; herriko puntu ahulenak, hutsuneak, zeintzu ziren aipatu eta gero horiek sailkatu garrantziaren arabera (puntuaketa sistema erabiliz garrantzitsuenak izendatu, alegia).

2. Ekintza ezberdinen proposamena.

Jende bera 3 lan taldetan bilduz, herrian zer egitea gustatuko litzaiekenari buruz aritu zen gogoetan. Ekimen edo ekintza ezberdinak planteatu ziren eta horiek area ezberdinetan sailkatu: turismoa, hiri-gintza, nekazaritza... Hau da: ideiak botatzen ziren eta gero, puntuaketa-aren bidez, garrantziaren arabera sailkatu.

**HERRIKO GABEZIAK AZTERTU
DIRA LEHENIK, ETA ATAUNEN
GARAPENERAKO EKINTZAK
PROPOSATU ONDOREN.**



SAN GREGORIO AUZOA

3. Ekimenen zehaztepena.

Azken fase honen izaerak hala galduta, talde txiki bat osatu zen, bertan ondorengo hauek parte hartuz: alkateak, udal idazkariak, udal batzordeetako zinegotzi arduradunek, alderdi politikoen ordezkariak eta puntualki zenbait adituk. Hauen egitekoa zein zen ikusita, kasu honetan aproposena edo egokiena talde txiki hori osatzea zela erabaki zen. Egiteko teknikoagoa zen, hain zuzen ere, talde honek burutu beharrekoa: aurrez (beste bi faseetan) herritarrek beraiek garrantzitsu eta nagusitzat jo zituzten areak edo ardatzak banaka hartu eta bakoitzaren inguruan ekimen jada konkretuak planteatu. Hau da: helburu orokor haiek egitasmo edo ekintza konkretuetan zehaztu. Adibidez: herritarren eritziz, etxebizitzak eraikitzeak lehentasunezko izaera badu, fase honetan zer-nola-koak, non, noiz eta nola eraikitzea komeniko litzatekeen zehaztu zen.

1997ko martxoaren 26an ospatutako Udalbatzaren Osoko Bilkuran onartu zen Garapen Plan hau. Onarpenak ez du esan nahi Plana bere osotasunean beteko denik ezta bertan agertzen diren ekintza guztiak bere horretan egingo direnik ere, beste hau baizik: etorkizunari begira Ataungo udalgintzan ardatz gisa Plan hori hartuko dela. Emango diren urratsak Plan horren arabera emango direla, alegia: eta hori horrela izango da, azken finean herritarren partaidetzak bidezkotu edo legitimatutako Plan bat delako (horien borondatea, iritzia eta lehentasunak kontutan hartuta egindakoa).

Gainera, kontutan hartu behar da egitasmo ireki bat dela: herrian, premia eta ideia berriak sortzen doazen heinean aldaketak egitea eta Plana egoera berriari egokitzea beharrezkoa bada, hala egingo da. Planaren xedea da, zentzu honetan, herriaren etorkizunaren erreferente izatea.

•
**1997ko
MARTXOAREN
26EAN
OSPATUTAKO
UDALBATZAREN
OSOKO
BILKURAN
ONARTU ZEN
GARAPEN PLAN
HAU.**
•



**Aia
Auzoa**

**PLANAREN
XEDEA,
HERRIAREN
ETORKIZUNAREN
ERREFERENTE
IZATEA DA.**

Lau area edo ardatz hartu ziren (aukeraketa hau, esan bezala, herri-
tarrek aurrez erabakitakoaren ara-
bera egin zelarik) eta horien ingu-
ruan zenbait adituren laguntza jaso,
arlotek aldetik ere plana egoki
“jantzita” egon zedin.

Lau lan ardatz garrantzitsuenak
aukeratuta, horietako bakoitzaren
baitan ekintza ezberdin batzu iden-
tifikatu dira eta gero ekintza ezber-
dinak duten garrantzia eta erreztasun-
aren arabera sailkatu.

Erizpideon artean garrantziarenak
halako lehentasun bat badu: ekintza
bat garrantzitsua den neurrian au-
rrera eramateko ahalgintza egingo
dira eta ez da inolaz ere baztertu-
ko gauzatzeko zaila izateagatik. Izan
ere, erreztasun mailak (handia, er-
taina, txikia) adierazten digu ekintza
hori epe motzera, ertainera ala lu-
zera egingo den; baina benetan era-
bakiorra herritarrek ekintza hori
buruz agertu izan duten iritzia da,
puntuaketa sistemaren bidez isladatuta
geratu dena, alegia.

Plan honetan jaso den ekintza oro
garrantzitsua delako, hain justu, jaso
da. Hots, garrantzi maila ezberdinak
bereiztu izanak (handia, ertaina eta
txikia) ez du esan nahi garrantzi
txiki bezala izendatutako ekintzek
garrantzirik ez dutenik, beste hau
baizik: badaudela beste ekintza bat-
zu garrantzi gehiagokoak, beti ere

beste haien garrantzia gutxietsi
gabe. Eta garrantzitsuak direlako,
erreztasun mailaren arabera egiten
joango dira.

Garapen Plan hau gauzatzea
erronka handia da Udalarentzat eze-
zik, herriarentzat ere: ahalgintza eko-
nomiko handia eskatzen duen
erronka, hain zuzen. Horrek esan
nahi du unean-uneke ahalbide eko-
nomikoak markatuko duela zer egin
daitekeen eta zer ez. Hau da: Uda-
ren egungo egoera ekonomikoak
duena baino zorpetze maila handia-
goa jasan dezakeen arren, neurri-
gabe jokatzeko asmorik ez dago.

Azken finean, oreka bat lortzea da
kontua: Garapen Plana betetzen
joan dadin, arazo ekonomikoak ez da-
dila izan gaindiezineko oztopoa eta
bai mementuoro zer egin daitekeen
adieraziko digun neurgailua.

Ondorengo orrietan, ardatz ez-
berdinak banan-banan aztertuko di-
tugu, bakoitzean zehaztu diren eki-
men batzuen aipamena eginez.

**EKINTZA
EZBERDINAK
GARRANTZI
ETA
ERREZTASUNA-
REN ARABERA
SAILKATU
DIRA.**

**UNEAN UNEKO
UDALAREN AHALBIDE
EKONOMIKOAK
MARKATUKO DU ZER EGIN
DAITEKEEN ETA ZER EZ.**

BIZIMODUA HOBETU ETA HERRIA BERRITU

Ardatz honek lehentasunezko izaera dauka, prozesuan zehar parte hartu duten herritarrek garrantzi maila hori aitortu diotelako.

Zergatik, ordea? Ataunen bizitzeko aukera sortzea beharrezkoa gertatzen delako, baldin eta bertakoak herrian geratuko badira (azken urteotako herritarren kanporako isuria etenez) eta, bere kasuan, kanpotarrak erakarriko. Horretarako, zerbitzu egoki batzuekin jantzitako herri txukun bat eskaini behar zaio interesdunari, hots, herri eroso bat. Herri batetan bizitzeko aukera egiten duenak, izan ere, hori guztia eskatzen baitio herri horri.

Eremu honetan zenbait ekintza dagoeneko martxan dago eta beste zenbait egiteko (epe labur ala luze-ago batean):

1. Udala herriari gerturatu

Hasteko, Udala eta herritarren arteko harremana sendotzeko, komunen sarritasunaz elkarren berri izateari, garrantzi handia eman zaio plan honetan. Komunikazioa bi zentzutan bideratzea da helburua:

1.1. Udaletik herritarrengana

Honi dagokionez, Udaletik herrira begira Udalberri aldizkaria daukagu

(martxan aspalditxotik) eredu nagusi bezala. Gainera, udal agiriak ere banatzen dira etxez etxe, Udalean egiten denari buruzko informazioa herritarrei heleraztearren: erabakiak, arau aldaketak, ekintza ezberdinetan parte hartzeko gonbidapenak (ikastaroak, feria edo azoka, liburu eguna...).

1.2. Herritarrengandik Udalera

Herritik Udalera komunikazioak, aldiz, Garapen Plan hau emaitzatzen duen prozesu osoan herritarrek izan duten protagonismoan aurkitzen du adibide aipagarrienetako bat: bere garaian Udalak zabalduko dei eta gonbiteari erantzunez, denen artean herriaren etorkizunari buruz gogoetan eta erabakitzen aritu izanean.

Era berean, udal arazoetan herritarren partaidetza hau bultzatu eta erreztearren egokiak izan daitezkeen beste bide batzu ere kontutan hartzen dira Planean, gerora begira martxan jartzeko asmoz: iritziak jasotzeko buzoia, erantzungailua udalletxean, enkuesta antzekoak...

2. Elkarguneak sortu

Elkarguneak sortzeko premia, herrian nabaritzen den sakabanaketa fisikoa aurre egiteko. Herritarrek

•
**ATAUNEN
BIZITZEKO
AUKERA SORTZEA
BEHARREZKOA
DELAKO,
LEHENTASUNEZKO
IZAERA EMAN
ZAIO ARDATZ
HONI.**
•

izan dezatela aukera elkartzeko eta elkarrekin denbora pasatzeko. Horretarako, jakina, non elkartu izan behar dute: gune apropos eta txukun batzu prestatuz. Zentzu hone-tan, hainbat ekimen aurrikusten da:

2.1. San Martinen

- a) Plaza berria egokitzea, erabilgarriagoa izan dadin: diseinu berri bat egin, haurrentzako jolas parkea bukatu, iturri bat jarri...



SAM MARTINGO PLAZA


- b) Altzanipe-Ubarrietarainoko iritsbide edo akzesoa mediku etxe eta Tailerretik bideratzea, San Martingo plaza peatonala edo oinezkoentzat uztearren.

- c) Garai bateko futbol zelaian egin ten ari diren etxe berrietan egun banatuak dauden udal zerbitzu batzu zentralizatu eta biltzea: liburutegia, osasun kontsulta, zinema aretoa, posta bulegoa...

2.2. San Gregorion

- a) Eskola zaharrak egokitu eta bizi piska bat ematea, bertan kultur etxea, osasun kontsulta eta beste zerbitzu batzu kokatuz.

- b) Plaza egokitzea.



**SAN GREGORIO PLAZA ETA
ESKOLA**

2.3. Aian

- a) Aterpe bat egitea, bertan zenbait zerbitzu eman ahal izateko (dagoeneko egiten ari dira): osasun zentroa, frontoia, komunak...

- b) Plaza bera egokitzea.

**HERRIAK BIZI DUEN
SAKABANAKETA
FISIKOAREN AURREAN,
ELKARGUNEAK SORTZEKO
PREMIA AZPIMARRATU DA.**



ETXEBIZITZAK ERAIKIKO DIREN APARKALEKUA

**UDALA ETA
HERRITARREN
ARTEKO
HARREMANA
SENDOTZEARI
GARRANTZI
HANDIA EMAN
ZAIO.**

3. Etxebizitzak

Etxebizitzak eraikitzea lehen mailako garrantzia duen ekintza da era berean. Izan ere, bere garaian etxebizitzaren defizitak herritarra Ataun uztea behartu zuen zenbait kasutan eta jakina, kanpotarra erakartzea ere ia ezinezkoa bihurtu. Bizitzeko leku egoki bat eskaintzea da edonork herriri bati eskatzen dion gutxienezkoa eta horren barruan, etxebizitza duina ezinbesteko baldintza da.

Etxebizitza mailan sortu daitezkeen ekimen pribatuak bultzatu eta bideratzea aurreikusi da, baina gaur egun dugun gabeziari aurre egiteko, ekimen publikoaren beharra ezinbestekotzat jo da, eta era honetan zehaztu:

3.1. San Martinen.

Babes ofizialeko egoitza edo etxebizitzak San Martinen (dagoeneko martxan daude obrak).

3.2. San Gregorion.

Gaur egungo aparkalekuan, 9 etxebizitza egiteko proiektua dago. Aurrera doan arren, badu gestio aldetik zenbait zailtasun: promozioa kooperatiba batek eraman behar du,

lur dena ez da oraindik Udalarena, aparkalekua beste leku batean egin behar da, Lauztierrekako bidea desbideratu...

4. Hirigintza arauak.

Hirigintza arauak edo plana berrikusi eta bere kasuan, aldatzea: sortzen doazen behar eta egoera berriei behar bezala erantzuteko eta sor daitezkeen ekimen berriak errezteko. Beharrezkoa ikusi da adibidez, San Martingo alde zaharra berritzeko, gune horri dagozkion arauen azterketa sakon bat egitea eta hori burutzeko beharrezko balitz arauak egokitzea

5. Garraio publikoa.

Garraio publikoa hobetzea, herriak egun duen komunikazio eskasari konponbidea ematearren. Izan ere, kotxerik ez duenari herritik kanpora joan beharrak nahiko lan ematen dio sarritan (baita askotan herrian bertan mugitzeak ere), nahiz eta 3 autobus konpainiek (Pesa, Estellesa eta Sarasola) euren zerbitzuak eskaini (zerbitzuok ez baitira nahikoak, ez kantitate aldetik ezta kalitate aldetik ere - paradak, ordutegia...).

**ETXEBIZITZAK
ERAIKITZEA,
LEHEN
MAILAKO
GARRANTZIA
DUEN EKINTZA
DA.**



**SAN
MARTINGO
ALDE
ZAHARRA**

•

**SORTZEN
DIREN
BEHARREI ETA
EGOERA
BERRIEI
ERANTZUTEKO,
HIRIGINTZA
ARAUAK
BERRIKUSI ETA
DAGOKION
KASUAN
ALDATZEA
AURREIKUSI
DA.**

•

Zentzu honetan, zerbitzu nahiko erosoa izatea espero da datorren uztailetik aurrera: uztailaren 1ean martxan jarriko da Goierri autobus zerbitzu berria (Sarasola ordeztuz), eskualdeko herri guztietara iritsiko dena. Ataungo Udalak gertutik jarraitu du orain arteko prozesua (sorrera...) eta aurrerantzean ere, martxan jartzen denean, hurbiletik zaindu beharko da ea nola funtzionatzen duen zerbitzuak.

Esan behar da, garraio arazo honetan agente publiko ezberdinak daudela inplikaturik: Goierriko Udalak (Ataungoa horien artean, jakina), Goieki (eskualdeko garapen agentzia) eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

..... **6. Zerbitzuak**

Zerbitzu orokorrak bultzatzea: herriko komertzioei... indar piska bat eman, bere garapena izan eta iraun dezaten; oinarritzko zerbitzu batzuei eustea beharrezkoa baita herriak bizia izango badu. Hementxe daukagu interesatuekin beraiekin kontatzeko beharrari buruzko adibide garbi bat: izan ere, alor honetan zer edo zer egin nahi delarik, zer edo zer hori behar bezala aterako bada, protagonista nagusienak diren "dendariek" (zentzu zabalean hartuta) ekintza horretan parte hartzen bultzatu eta lortu behar da.

•

**GARRAIO PUBLIKOA
HOBETU, HERRIAK EGUN
DUEN KOMUNIKAZIO
ESKASARI KONPONBIDEA
EMATEARRREN.**

•

Nola? Horiekin bilerak eginez, zenbait punturen gainean hitz egin eta erabakitzeke: elkarteak sortzea, komertzioak egokiro seinalizatzea (baitipat kanpotarrei begira), kalitatea bultzatzea... Gainera, herriko produktuei irtenbidea ematearren, horiek saltzeko denda bat jartzea Planean proposatzen den beste ekimen bat da.

Eremu honetan aipatzekoa da era berean astelehenero egiten hasi den azoka: bertako zerbitzuen osagarri izateko asmoz martxan jarritako esperientzia honek harrera ona eduki du herritarren aldetik eta bertaratu diren saltzaileak ere gustora azaldu dira. Beraz, "esperimentua" positibotzat jotzen denez, jarraipena izango du erantzun hori dagoen bitartean. Bestalde, azoka honetan euren postuak jarritz parte hartzeko gonbitea luzatu zitzaizen herritarrei ere, jakina; gaur gaurkoz bat edo



ASTELEHENETAKO PERIA

beste animatu da bakarrik. Esperientzia eta tradizio falta izan daiteke horren arrazoi nagusia: behar bada, denborarekin, azoka hau finkatzen doan neurrian, bertako saltzailea ere animatuko da.

7. Osasun zerbitzuak

Osasun zerbitzu egoki bat edukitzea garrantzi handiko arazoa da herritarren ongizatea eta bizimodua hobetzeko helburu nagusiaren barnean eta hala delako hain zuzen ere, Planean aipatzen da 3 auzo nagusietan osasun zentro berriak egiteko premia.

HIRU AUZO NAGUSIETAKO OSASUN ZENTRU BERRIAK EGITEKO PREMIA ANTZEMAN DA.



ESPALOI HONEK IZANGO DU JARRAIPENA

8. Ibilbideak

Oinezkoiei begira bideak egokitzea, kotxe eta antzekoen beldurrik gabe, herrian zehar lasai ibiltzeko aukera izan dezaten. Honi dagokio-

nez, hauetxek dira Planean aipatzen diren ekintzak:

8.1. Herribide Zaharra pasealeku bezala egokitzea: oso aurrerata dago honez gero eta jende ugari "aprobetxatzen" du bide zahar berritu hau San Martindik San Gregoria nahiz San Gregoriotik San Martina euren paseotxoak egiteko.

8.2. Joxemiel Barandiaran Eskolatik Arrondorainoko espaloia eraikitzea, bide batez, ur-hornidura, saneamendua, argia... lurperatuz: herritarren aspaldiko eskaera honi behingoz erantzutea espero da, aurtengo (1997) ekaina-abendua bitartean egingo baitira obra horiek guztiak.

8.3. San Gregoriotik Iturritza - rainoko espaloia egitea.

8.4. San Gregoriotik Murkondorainoko espaloia egitea.

9. Bide-sarrerak

Bide-sarrerak hobetzea, gune batzu, estuak izateagatik edota beste aldetik zer datorren ikusteko zailtasunak jartzeagatik, arriskutsuak gertatzen baitira kotxe, oinezko, txirridulari eta antzekoentzat. Horregatik aurrikusten da Planean, besteak beste ondorengo ekintza hauek burutuko direla arazo honi irtenbide egokia emateko:

9.1. Bidegurutzetan ispiluak jartzea: Paskual Iturrin, Aitzarten, Arinberriagan...

9.2. Paskual Iturri guneko urbanizazioa berritzea: aparkalekua egokitu, bidegurutzeta hobetu...

9.3. Aitzarteko bide-sarrera zabaltzea urbideraketa eta Iztatorren urbanizazioa egiterakoan.

ZERBITZU OROKORRAK BULTZATZEA EZINBESTEKOA DA, HERRIAK BIZIA IZANGO BADU.

**KULTUR ETA
OSASUN
AZPIEGITURAK
AURREIKUSI
DIRA HEMEN**



**OINEZKOEI
BEGIRA
BIDEAK
EGOKITZEKO
HAINBAT
EKIMEN
PLANTEATU
DIRA.**

10. Kultur azpiegitura

Kultur ekipamendua osatu eta hobetzea. Kultura, bere luze-zabalean, herri edo gizarte baten ongizate maila neurtzeko “tresna” bat baita: zentzu honetan, garrantzitsua da kultur ekipamendu egoki bat izatea eta herritarrei kultur aukera ezberdinak eskaintzea. Hona hemen Planean jasotzen diren ekintzak:

10.1. Zinema ekimen anitzetarako aretoa egitea San Martingo etxe berrietan (babes ofizialekoetan).

10.2. Liburutegi berri bat eta berarekin batean erabilpen ezberdinak eman ahal izateko lokal batzuk kokatzea San Martingo etxe berrietan.

**HERRITARREI KULTUR
AUKERA EZBERDINAK
ESKEINI AHAL IZATEKO,
AZPIEGITURAZ OSATZEA
BEHARREZOA DA.**

10.3. San Gregorion Kultur etxe antzeko bat egitea (Eskola zaharren birmoldaketaren barruan).

11. Azpiegiturak

Atal honetan sartzen den ekintza asko burutu da jadanik, beste batzu martxan daude... Hara nola:

11.1. Erreka bideraketak burutzea: Aitzarte erreka Iztatorren eta Agauntza San Gregorion. Era honetan, uholdeekiko neurriak hartzeaz gain, gune hauen hirigintza garpena bideratuko litzateke.

11.2. Ur hornidurako sareak poliki-poliki berritzea, daukaguna oso zahartua eta galera handiekin arkitzen baita. Dagoeneko galera konpontzen ahalegin bat egin da, eta Arrondoko espaloiekin batean gune horretan tuberi berria sartuko da. Baina herria luzea izanik zeregin asko gelditzen da egiteko.

11.3. Herriko argiteria hobetzea argien banaketa aldatuz eta kontsumoa gutxituz. Bonbillak aldatzen hasia da dagoeneko Udala, kontsumoa gutxitze arren.

11.4. Aparkalekuak sortzea hirigune ezberdinetan. San Martingo “mataderia” bota eta bertan aparkaleku batzuk bideratu adibidez.

11.5. Udal biltegia eraiki Zubikoetako Industri gunean, “mataderiak” ez baititu dagoeneko beharrak betetzen eta gainera botzatzea aurreikusi da.

11.6. Gas zerbitzua jarri hirigune nagusienetan, etxe guztietara tuberiak helaraziz depositu nagusi batzuetatik.

11.7. Zubiak txukuntzea: Batzuk egokitu dira (Atxurrenekoa adibidez) eta beste batzuk egiteko daude (Biddartekoa ...).

11.8. Posta buzoiak berritu eta jabeen esku uztea. Batzu jarri dira dagoeneko.

12. Ingurugiroa

Ingurunearen kalitatea zaintzea gaur egungo gizartearen kezka nagusietako bat da, bere bizitza eta ongizate kalitatearekin erabat lotuta baitago. Honi dagokionez, gure herriak ingurugiro “sano” bati eutsi dio oraindaino. Hala ere, horrela jarraitzekotan, beharrezkoa da gutxieneko neurri batzu hartzea eta horrela jaso da Planean. Adibidez: Paperontzi berriak jartzea, Txatarren egoera aztertu eta konponbide bat ematea, arauz kanpoko txabolen eraikuntzik ez onartzea e.a...

**UR-HORNIDURAKO
SAREA BERRITU
BEHARREAN DAGO.**

**INGURUGIRO-
AREN
ATALEAN,
GUTXIENGO
NEURRI
BATZUK
HARTZEN
HASI BEHARKO
DU UDALAK.**



KULTURA, AISIALDIA ETA TURISMOA BULTZATU

Ezertan hasi baino lehen, ardatz honi dagokionez zerbait argitzea komeni da: Plan honetan, kultura eta aisialdiarekin batera, turismoa bultzatzeak lehentasun izaera du. Gauzak horrela, bati baino gehiagori kezka hau sor da: nola da posible Ataun eta turismoa uztartzea? Ze turismotaz ari gara? Honi dagokionez, burura etor dakizkiguten aurreritzi eta topikoak gainditzea beharrezkoa da:

Jakina da Salou edo Benidorm moduko lekuetan ematen den turismoak ez duela gurean zereginik. Baina Sarakoaren pareko zerbaitek bai. Ataunen bultza edo gara daitekeen turismo mota, dudarik gabe, natura eta kulturarekin zerikusia duen turismoa da, Aralarko Parke Naturala eta Joxemiel Barandiaran direlarik, hurrenez hurren, bi eremuon adierazgarri nagusienak (ez bakar-rak, dena den). Hau da, herriaren



ATAUNGO DOMOA
ETA ARALAR

•

**TURISMOARI LEHEN
MAILAKO GARRANTZIA
EGOZTEN ZAIO,
HERRIAREN GARAPEN
EKONOMIKO ETA SOZIALA
BULTZA DEZAKELAKO.**

•

berezko izaera “biziatsu” edo “zikintzeko” arriskurik ez dago alde horretatik: aitzitik, nortasun hori sendotu eta berresteko parada egokia izan daiteke, kontutan izanez gero natura eta kultura ardatz gisa hartzen dituen turismoaz ari garela eta Ataun definitzen hasiko bagina, bi elementu horiek goren mailan azalduko lirateke ezpairik gabe.

Gainera, kultura eta natura “produktu turistikoetan” bihurtu eta ustiatzea ez da nolanahi egingo, baizik eta horiek biek merezi duten begirune eta babespenak galdaturiko kontrolpean gauzatuko da ustiatze turistiko hau.

Bestalde, epe laburrerako turismoaz ari gara, egun bat, asteburu bat edota gehienez ere aste bateko bisitaldietan konkretatuko dena.

Turista mota, beraz, eskaintzen den aukeraren parekoa izango da: hots, naturzalea eta kulturzalea. Dena den, eskaintza ahalik eta zabalen egingo da, kezka minimo bat duen ororentzat baliagarria. Hau da, ez da beharrezkoa kulturzale edo naturzale amorratua izatea: mendian zehar ibilaldi txiki bat, baserri batean asteburu lasai bat, eskalada... aukera anitz edukiko du balizko turistak (hori da, bederen, asmoa).

Zergatik eritzi izan da turismoa garrantzitsu lez? Egundak etorkizunari begira, turismoak garapen ekonomiko orokorrean protagonismo berezia izango duela aurrikusten delako (eta inguruko zenbait esperientzia ikusi besterik ez dago hori horrela dela berresteko). Gainera, etorkizun oparo hau turismo forma berrientzat iragartzen da, batipat: kultura eta natura oinarri dituen turismoarentzat, alegia.

Horregatik, iharduera ekonomiko honek herriaren garapen ekonomiko eta soziala bultzatzea pentsatzen delako, egozten zaio Planean lehen mailako garrantzi hori.

Izan ere, gure herria nekazaritza herri bat lez kontsidera dezakegu (nahiz eta gaur egun nekazaritzatik soilik bizi den herritar gutxi egon), industria garapenik ezagutu ez duena; baina nekazaritzaren egungo egoeraz jabetuta, garbi dago bide berriak urratzea beharrezkoa dela: hots, hura erabat baztertu gabe, beste baliabide ekonomiko batzu ustiatzea eta horien artean, turismoak, esan dugun guztiarengatik, papel garrantzitsua bete dezake aberastasun eta lanpostu iturri lez. Bidea asmatzean dago kokka: asmatu eta aurrera egittea da erronka. Baina, dudarik gabe, hor dago landu beharreko bide bat.

Beste bi arloei dagokienez, garbi dago zergatik kontsideratzen diren hain garrantzitsuak: nolabait esateko, kultura eta aisialdiko aukeren “kalitateak” herri baten edo gizarte baten ongizate maila neurtzen baitu.

Aisialdia, kultura eta turismoa bat eginda ardatz berean elkartzeak ere bere arrazoia dauka: arestian aipatu bezala, turismo eskaintza egiterakoan kulturak zerikusi handia izango baitu eta bestalde, bata zein bestea (kultura eta turismoa, alegia) aisial-

•

**KULTURA ETA
NATURAN
OINARRITUTAKO
TURISMOA
DAGOKIO
ATAUNI.**

•

•
**KULTURA
ETA
AISIALDIRAKO
AUKERAK
HERRI BATEN
ONGIZATE
MAILAREN
ADIERAZGARRI
I DIRELAKO,
ARRETA
BEREZIA
ESKEINI ZAIE.**

dirako tarte horiek betetzeko bi modu baitira.

Ardatz honen baitan aurrikusten diren ekintzak aurrera eramateko orduan finantziario arazoek zeresan handia daukate: ekintzon izaera ikusita ekimen pribatu eta publikoa, biak, mugitzea eta bustitzea ezinbestekoa gertatzen baita eta Udalak beste agente batzuren laguntza bilatu behar duenez, ekintza garrantzitsuenak (bere esanahiagatik ezezik, ekonomikoki galdatzen duten ahaleginagatik ere) gauzatu ahal izateko gehiago itxaron beharko dugu. Dena den, ekintza horiek gauzatzeko bidea egiten den bitartean, halako zailtasunik ez daukaten beste batzu, puntualagoak direnak, mar txan jarri dira dagoeneko, modu honetan, gutxienez sarea poliki-poliki osatzen joan dadin.

Aisialdi, kultura eta turismoaren inguruan Planean jasotzen diren aurrikuspenen artean, adibide gisa hauek aipatuko ditugu:

•
I. Harrera-etxea

Kanpotik datorren bisitariak informazio bila nora jo eduki dezan. Bertan, Ataunek duen eskeintzaren berri emango da, bisitariak bere aukera

•
**KANPOTIK DATORRENAK
INFORMAZIO BILA NORA
JOANA EDUKI DEZAN,
HARRERA ETXEA
BEHARREZKOA DA.**

egin dezan. Ezinbestekoa da, Harrera Etxeari ekiterakoan, eskeintza zehaztu eta garatua izatea, beraz epe motzera kokapena, finantziarioa eta ustiatzea zehaztu beharko dira, ondoren errealitate bilakatzeko.

•
**2. Joxemiel Barandiaran
Interpretazio Zentrua**

Gauzatzeko zailtasunak agertzen dituen ekintza oso garrantzitsu horietakoa da. Interpretazio Zentrua deitzen diogun konzeptuaren barnean, Joxemielek eginiko lanaren emaitzak ezagutu eta ulertzea eramango gaituzten ekimenak sar ditzakegu: Gure arbasoak ezagutzen lagundu diezaguen trikuharrietara bisita batetik hasi, eta kontakizun mitologiko bat azalduko digun bideo ikuskizun bateraino.



Atal honetan, Harrera Etxearekin batean kokatuko liratekeen gela ezberdinetan egingo litzatekeen eskaintzara mugatuko gera. Hortik kanpora gelditzen diren ekimenak aurrerago landuko ditugu.

Adibide gisa esan, antropologia, arkeologia, mitologia, etnografia, eta Joxemiel berari eskeinitako gune ezberdinak aurkitu ahal izango genituzkela hemen, beti ere dinamizazio plan egoki batekin. Gune hau nola izango litzatekeenari buruzko aurreproiektu bat egina dago jada-

JOXEMIELEN LANAREN EMAITZAK EZAGUTU ETA ULERTZERA ERAMANGO GAITUZTEN EKIMENAK OSATUKO DUTE INTERPRETAZIO ZENTRUA.

nik. Ondorioz, Garapen Planean, gune hauen kokapena eta finatziazioa ahalik eta azkarren finkatu beharrekotzat jo dira, eraikuntzari ere epe motzera heldu ahal izateko.

3. Ibilbideak

Arrazoi ezberdinetan oinarriturik gauza ezberdinak ezagutaraziko dizkiguten ibilbideak egokitzea aurreikusi da Planean. Ibilbide hauek,

maila eta modu ezberdinetakoak izan daitezke, beti ere natura eta Joxemielen azterlanen urratsetatik eramango gaituztelarik.

3.1. Herribide Zaharra pasealeku bezala egokitzea (nahiz eta “Bizimodua hobetu eta herria berritu” deitu ardatzean jaso, garbi dago aisialdiarekin duen lotura zuzena): dagoeneko nahiko aurreratuta dagoena.


3.2. Ataungo kobetarako bisitak eta Joxemiel Barandiaranen inguruko 7 ibilaldi tematiko definitu, egokitu eta seinalizatzea aurreikusi da Planean. Lan hauek Goieki eta Goimenekin elkarlanean egitea bidezko jo da, Ataungo Ibilbideak Goierriko beste herrietakoekin batean ere eskeiniak izan daitezten. Lan hauek amaitzean, liburuxka edo gida bat argitaratuko litzateke ibilbide hauen berri emanez, eskaintza honi dagokion hedapena ematearren. Esan, alor honetan dagoeneko pauso batzu eman direla.

3.3. Mendiko bizikletaz egin daitezken ibilbideak ere zehaztu, ego-

**GAUZA
EZBERDINAK
EZAGUTARAZI
KO
DIZKIGUTEN
IBILBIDEAK
EGOKITZEA
AURREIKUSI
DA.**



TRIKUHARRIEN
IBILBIDEKO
ABIAPUNTUA



JENTILBARATZAKO
ESKALADA
PARETA

kitu eta seinalizatzea egoki ikusi da aukera ezberdinak izatearren.

4. Aisialdirako ekintzak antolatu

Kirola eta naturarekin zerikusia duten ekintza ezberdinak antolatzeke aukera eskaintzen du Ataunek, ekintza hoiek dinamizatu eta beraiten monitore lanak egitea ogibide izan daitekelarik. Adibide bezala honako hauek datoz Planean: Espeleologi irteera eta ikastaroak

**KIROLA ETA
NATURAREKIN ZERIKUSIA
DUTEN EKINTZA
EZBERDINAK
ANTOLATZEKO AUKERA
ESKEINTZEN DU
ATAUNEK.**

herriko kobetan, eskalada eskola Jentilbaratza iguruetan, Agauntza erreka jaitsiera Lizarrustitik barrena, orienting ikastaro eta aktibitateak, parapentea, zaldi irteerak e.a..

5. Egonlekuak prestatu

Ditugun egonleku batzu egokitu eta beste batzuk eratzea interesgarri jo da. Txukundu eta egokitu beharrezkotan Intxusti, Astigarraga eta Bostbideetakoa egongo lirateke. Eta gaur egun eratu gabe dauden eta honelako gune bat eroso etorriko litzatekeen tokitzat Urkillaga, Erremedio eta Marumendiko zelaia aipatu dira.

6. Lizarrustiko aterpetxearen kudeaketa.

Honen ardura Foru Aldundiarena izan arren, honi gertutik jarraipena egitearen garrantzia egiaztatu da. Ondorioz, Ataungo Udalaren ikuspuntutik etxe horrek izan beharreko erabileraren inguruan proiektu bat egin eta Foru Aldundiari aurkezteaz gain, etxe horren kudeaketa herritar batzuen esku gera dadin ahaleginak egitea beharrezkoa jo da.



ASTIGARRAGAKO PARKEA

LIZARRUSTIKO
ATERPETXEA

7. Herriko ondarea berreskuratu.

Zalantzan jarri ezin daiteken balio kultural bat dutelako, eta turismo eskaintzaren barne erabilgarriak izan daitezkelako, herriko ondarea berreskuratzeari ekitea aurreikusi da, eta ondorengo hauek dira adibide batzu:

7.1. San Gregorioko errota eta errotatxoren balioa kontrastatu da horrelako gauzetan adituak direnen laguntzaz. Udala bi hauek bereganatzea litzateke helburua, gero behar

bezala egokitu eta erakusgarri jar-tzeko.

7.2. Txir rikak . Zenbat eta zer egoeratan dauden zehazteko inbentario bat egin beharko litzateke lehenik, ondoren zeintzuk egokitu eta mantendu erabakitzeko. Txirrikeri buruzko azterketa lan bat bukatze- ar du herritar batek, Udalak berak esle- itutako beka bati esker. Horrela, ondasun etnografiko hau berresku- ratu eta kultur zein turismo baliabide lez ustiatu ahal izango da, erakus- taldi berezi batzuk antolatzea ere planteiatu izan delarik.

**HERRIKO ONDAREA
BERRESKURATU: BALIO
KULTURAL BAT DUELAKO
ETA TURISMO
ESKANTZAREN BARNE
ERABILGARRIA IZAN
DAITEKELAKO.**



SAN GREGORIO ERROTA

• "ATAUNGO MENUA" SORTU ETA BULTZATZEA, INTERESGARRIA LITZATEKE HERRIKO JATETXEENTZAT.

7.3. Karobi eta trikuhar riak txukundu, seinalizatu eta ibilbideetan sartu.

8. Azpiegiturak

Egun bat baino gehiago herrian pasa nahi duenari aukera hori eskeintzeko azpiegituraz hornitu beharra aztertzen da Planean, horrek lanpostu batzuen sorrera ekar baitetzake. Zentzu honetan, gaur egun ditugun nekazal-turismo etxeak eta sor daitezken berriak bultzatzeaz gain, kanpin baten bideragarritasuna aztertzea proposatzen da, kokapena, finantziarioa eta gaineratikoak kontutan izanez.

Zentzu honetan, Gabrielleneakoe-kin elkarlanean Udaleku batzuk herrian antolatzeak ere, herriari bizia eman diezaiotke uda partean.

9. Gastronomia

Baliabide gastronomikoak bultzatzea, arrazoi honekin jendea erakarri herriko dendari eta jatetxeak indartzeko helburuarekin. Adibide gisa bi ekimen aurreikusi dira:

9.1. **Ataungo produktu** bezala mondejuak, mamia, taloa, gazta, perretxikuak, zizak, indaba, intxaurra, gaztaina eta antzekoak ezagutarazi.

9.2. **Ataungo menua** . Garai bakoitzeko produktuekin "Ataungo menu" berezi batzu prestatu eta eskaini (horretarako, jakina, herriko jatetxeekin bildu eta hitz egitea beharrezkoa da).

10. Komunikazio plana.

Komunikazio plan bat diseinatu eta burutzea ezinbestekoa da, turismoaren inguruan aberastasun bat sortu nahi bada; hau da, zerbait saldu behar da (beti ere "saldu" zentzu positiboan) eta zerbait salduko bada, lehenik ezagutarazi egin behar. Lehenik eta behin irudi korporatibo bat aukeratu eta gero gida, liburuskak eta gaineratikoak argitaratzea aurreikusi da, beti ere aurrez zehaztutako komunikazio planari erantzunez.

• ATAUNGO ESKEINTZA EZAGUTARAZTEKOA, KOMUNIKAZIO PLAN BAT BURUTZEA EZINBESTEKO IZANGO DA.

•
HERRIAN
EGUN BAT
BAINO
GEHIAGO
HERRIAN
PASATU NAHI
DUTENENTZAT
AZPIEGITURA
OSATZEN
JOAN
BEHARRA
DAGO.

NEKAZARITZA

Ataun nekazal herria izaki, bere nortasunaren oinarrietako bat den arlo hau ere zaindu behar da eta berrindartu gainera. Horregatik erizten zaio ardatz honi garrantzitsua dela: herri identitatean nekazaritzak izan duen pisua hain nabaria izanik, egun ere nekazal herri lez ezagutua izan dadin nahi delako. Nekazaritzak iraungo badu, ordea (eta lehen sektore honetatik bizi diren herritarrak ez dira jada asko), gaur egungo inguruabarrei egokitzea beharrezkoa gertatzen zaio: irtenbide, erabilpen edo ustiapen modu berriak topatzea, hain zuzen ere (jakina, errentagarritasun ikuspegia beti aurrean dela).

Helburu hori buruan, besteak beste ekintza hauek aurrizkustun dira Planean:

1. Beharren ezaguera

Asko hitzegi izan da nekazaritza bultzatzeaz, baina ezagutzen al ditugu beraien benetako beharrak eta egoera? Plan honetan, lehenik eta behin egoeraren ezaguera bat izatea ezinbestekotzat jo da, behar izan ezkero horretara zuzendutako ikerketa bat egin beharko litzatekeelarik.

2. Prestakuntza.

Beharrak ezagutu eta gero, dituzten arazo eta gabeziei erantzun ahal

•
**BEHARRAK
EZAGUTU ETA
GERO,
DITUZTEN
ARAZO ETA
GABEZIEI
ERANTZUN
AHAL IZATEKO
PRESTAKUNTZA
ESKEINI BEHAR
ZAIE.**
•



NEKAZARITZAREN EBOLUZIOAREN ADIBIDE BAT

• EKIMEN BERRIEKIKO ARRETA BEREZIA IZAN BEHARKO DU UDALAK.

izateko heziketa eta orientabideak eskeintzea izango litzateke egokiena. Adibidez, labelari buruzko informazioa, landaketa berri edo errentegarriari buruz...

..... 3. Ekimen berriak

Nekazal arloan sor daitezken ekimen berriekiko arreta berezia izan beharko du Udalak, bere esku dagoen neurrian bultzada bat emanez, errealitate bilaka daitezen. Ekimen berriak, gaur egungo esplotazioen



ANDRALIZETA BASERRIA

handitze eta zabaltzeak ere ulertzen dira.

Planean aurreikusi da baita ere, uda mendian pasatzen duten aberburuak hobetzeko, elikagai-ikailu bat antolatzeako proiektua aztertzea.

..... 4. Azpiegiturak

Baserrien azpiegiturak hobetzen joatea Udalaren helburu izan behar du, bereziki ura eta bideak aipatu direlarik.

..... 5. Turismoari lotutako irtenbideak

Nekazal sektorearen osagarri izan daiteke turismoa hainbat eremutan. Garapen ekonomikoari begira turismoa bultzatzea aurreikusi da, eta nekazal sektoreak horri etekina atera behar dio. Nekazaritza eta turismoak izan dezaketen lotura hori Udalak bultzatu beharko du, honako hauek izan daitezkelarik adibide batzuk: agroturismo etxeak, baserrietara bisita gidatuak eta ondorengo puntuan aipatuko den "denda".

• AZPIEGITURAK

HOBETZEN

JOATEA

UDALAREN

HELBURU

IZAN BEHAR DU.

•

**NEKAZAL
SEKTOREAREN
OSAGARRI
IZAN DAITEKE
TURISMOA HAINBAT
EREMUTAN.**

•



ALDARRETA BASERRIA

•

**6. Bertako produktuak
saltzeko denda bat**

.....

Turismo atalean aipatu den Harrera Etxearekin batean, bertako baserritar eta artzairen produktoak salduko liratekeen gune bat jartzea aurreikusi da. Sektore honetan diharduten herritarrentzat, herrian bertan beraien produktoentzat irtenbide bat izatea suposatuko luke, diru iturri bat azken finean.

**7. Aralar Parke Naturalaren
inguruan sor daitezkeen lanak**

.....

Asko edo gutxi, Aralar Parke Naturalaren inguruan hainbat lan sortuko dira. Lehenik lan hauen identi-

fikazio bat egin beharko da, eta gero, lan hauek herritarren esku gera daitezen ahalegindu.

.....

8. Herri lurak

.....

Nekazaritzarekin zerikusi zuzenik ez badu ere, ardatz honen barnean arreta berezia eskeini zitzaien herri lurrei. Lehenik, hauen inbentario eta markaketa bat egin beharra ikusi zen, era berean egon daitezkeen enklabeak garbituz. Honez gain, Foru Aldundiarekin batean Mendi Publikoen ustiapen plan berri baten beharra mahairatu zen, lehengoa zaharkitua aurkitzen delako. Esan genezake, hau jadanik martxan dagoela.

•

**NEKAZARI-
TZAREKIN
ZERIKUSI
ZUZENIK EZ
IZAN ARREN,
HERRI
LURREN
EGOERA ERE
AZTERTU
DA.**

•

•

**BERTAKO BASERRITAR
ETA ARTZAINEN
PRODUKTUAK SALDUKO
LIRATEKEEN GUNE BAT
JARTZEA AURREIKUSI DA.**

•



BASERRI BIDEAK: OINARRIZKO AZPIEGITURA

INDUSTRIA

INDUSTRIAL- DEAREN GARAPENA UDALETIK ERE SUSTATU BEHAR DA.

INDUSTRIALDEA
GARATUKO DEN
GUNEAK

Herrira industria erakartzeko ideia honen inguruan galderra eta kezka anitz sor daiteke (turismoarekin gertatzen bezala): askoren buruan industrialdutako herria kutsatutako herriaren parekoa da, erabat gaisotutako ingurugiroa duena. Nekazal herria izateak daukan alde on bat, berriz, hauxe da: ingurugiro egoki eta osasuntsu, sano batez gozatzeko aukera dugula (trukean lanpostu iturri garrantzitsu bati, hots, industriari, uko egin arren). Hori horrela eta industriak “ingurugiroaren etsai” lez daukan irudia ikusita, argibide batzu ematea beharrezkoa gertatzen da: Ataun ez da izan eta etor-

kizunari begira ez da izango ere industri herri bat, horretan ez dago zalantzarik. Dena den, ez zaizkio atearik itxi behar ezta itxi nahi ere, aberastarun eta lanpostu iturri den neurrian, industria erakartzeko ahaleginak egingo direlarik; baina ez edozein industria: naturarekin zerikusi zuzena duena bertaratzea da ideia (parke-eko-teknologikoa); zerikusi zuzena, jakina, zentzu positiboan: natur baliabideen erabilpen eta ustiapen kontrolatua suposatzen duena, hots, ingurugiroa kaltetzeke, hau errespetatuko duena.

Idea bera polita da, bai, baina hori praktikan gauzatzea asko kostatuko dela ezin ukatu: izan ere, ez baitago





UR LANTEGIA ERAIKIKO DEN INGURUEA

Udalaren eskuetan bakarrik, ekimen-
dun enpresariak ere zeresan handia
dutelarik horrelako zerbeit martxan
jartzeko orduan.

Azken finean, gauza bat da Udalak
nahi duena eta bestea ahal dena edo
posible dena. Hona hemen aipatu
diren ekimen batzuk:

1. Industrialdea garatu.

Gasolindegia eraiki den ingurua
industria gune bezala izendatua
dago, eta honen garapena Udaletik
sustatu behar da, horretarako ber-
tako jabeek osaturik sortuko den Ba-
tzordean partehartze zuzena izanez.

2. Industria erakarri.

Egon daitezkeen ekimenen ingu-
ruan adi egon beharra dago. Hauen

berri izan eta gero, ezinbestekoa da
herrira etor daitezen ahaleginak egi-
tea, baldin eta aurrez aipatu ditugun
erizpideekin bat badatoz. Adibide
konkretu bezala, ur-boteilaratze en-
trepresa aipatu da. Hau errealitate
bilakatu dadin Udalaren esku da-
goen guztia egin behar dela esatean
ez da zalantzarik sortu.

**INDUSTRI HERRI BAT
EZ IZAN ARREN,
ATAUNI DAGOKION
INDUSTRIA
ERAKARRI
BEHAR DA.**

ELKARBIZITZA

•
**ATAUNGO
GIRO
SOZIALA
HOBETZEKO
EKINTZAK
PLANTEATU
ETA
GAUZATZEAK
PREMIAZKO
IZAERA
DAUKA.**


AGAUNTZA
ARANA

3 taldeetan banatuta herriko arazoak zerrendatzen aritu ziren lehen fase hartan, honako hau nabarmendu zen talde guztietan kezka nagusi bezala: ataundarrok geure artean zatiketa sozial bat bizi dugula, maila haundi batean azken urteotan politikak eraman duen bilakaerak eragina, eta maila txikiago batean auzokeriek. Honek, herrian tensio giro bat bizi arazteaz gain, herri garapena ere kolokan jarri izan du.

Ondorioz, Ataungo giro soziala hobetzeko ekintzak planteatu eta gauzatzeak premiazko izaera daukala adierazi zuten lantalde guztiek. Bizi dugun egoera honetara ekarri gaituzten arrazoiak aztertu baziren ere, horren ardura norena izan den

•
**IRITZI
EZBERDINAK
KONTUTAN HARTUZ
KONTSENTSUAK
LORTZEN SAIATU
BEHAR DA.**

•
aztertzen ez zen segundu bat ere pasa, azken finean, herritar orok izango baitu maila handi edo txikiagoan ardura zati bat.



ELKARTE EZBERDINEN ARTEKO HARREMANAK BILAKATUKO DITUZTEN EKIMENAK BULTZATZEA AURREIKUSI DA.

Ardatz honetan, ekintza konkretuak zehaztea baino egokiago ikusi da, erizpide orokor batzu ezartzea, bai udalgintzan eta baita herri ekimen ezberdinetan ere kontutan izan daitezen.

1. Guztion partaidetza lortu

Bai Garapen Plan hau bera, eta baita beste edozein ekimen ere aurrera eramateko garaian, herritarrekin kontatzea ezinbesteko premisa gertatzen da, azken finean herriaren etorkizuna dagoelako jokoan, eta hau denoi dagokigunez, denon artean egiten saiatu behar dugulako.

1.1. Informazioa zabaldu. Lehenik eta behin, beharrezkoa ikusten da ekimen ezberdinei buruzko informazioa zabaltzea, herritarrak jakinaren gainean egon daitezen.

1.2. Iritziak jaso . Ekimen ezberdinen inguruan, gaiarekin zerikusia izan dezaketen eta gaineratiko herritarren iritziak jasotzea guztiz garrantzitsua da, ezinbestekoa baita hauek kontutan izatea etorkizunerako bidean.

1.3. Kontsentsu bideak urratu. Ekimen baten inguruan jasotzen diren iritzi ezberdinak kontutan hartuz, hauen inguruan kontsentsuak lortzen saiatu behar da, ekimen hori

errealitate bilakatzeko garaian ahalik eta herritar gehienen babesa izan dezan.

2. Gizarte-ajente edo eta elkarteak

Talde ezberdinen partaidetza bilakatuko duten ekimenak bultzatzea aurreikusi da. Elkarte ezberdinetatik antzeko ekimenak bultzatzen direlako askotan, eta hauek amankomunean egin daitezkeela ikusten delako alde batetik. Eta bestalde, elkarte ezberdinetan dabiltzanen arteko komunikazioa eta elkarlana positiboa ikusten delako bere baitan.

3. Elkarrizketarako dinamika bultzatu.

Herriko zatiketa sozialari irtenbide bat emateko tresna garrantzitsunetako bat “elkarrizketa” izan daiteke. Iritzi eta joera ezberdineko taldeak izatea berez aberatsa dela ukatu gabe, edozein arazori aurre egiteko garaian, ezberdintasunak oztopo bat izan ordez, benetan faktore positibo izan daitezela lortu behar da. Horregatik, taldeon arteko komunikazio bideak ireki eta indartzea ekintza garrantzitsu lez planteatzen da.

ZATIKETA SOZIALARI IRTENBIDE BAT EMATEKO TRESNA GARRANTZITSUENETAKO BAT “ELKARRIZKETA” DA.

UDAL BERRIAREN OSAKETA

KOADRILAKOADRIL
AKOADRILAKOADRIL
LAOADRILAKOADRIL
ILOADRILAKOADRIL
RILAKOADRILAKOADRIL
DRILAKOADRILAKOADRIL
ADRILOADRILAKOADRIL
OADRILAKOADRILAKOADRIL
LAOADRILAKOADRILAKOADRIL
AKOADRILAKOADRILAKOADRIL
LAOADRILAKOADRILAKOADRIL
ILOADRILAKOADRILAKOADRIL
RILAKOADRILAKOADRILAKOADRIL
DRILAKOADRILAKOADRILAKOADRIL
ADRILOADRILAKOADRILAKOADRIL
OADRILAKOADRILAKOADRILAKOADRIL

